

PATXI ETA MAXEN MAGIA

Bergara izeneko herri batean Patxi bere txakur magikoarekin bizi zen. Txakurraren izena Max zen. Patxi eta Max etxe txiki batean bizi ziren eta etxeak ez zuen ez urik, ez argindarrik ere. Patxik 11 urte zituen eta Maxek 2. Patxiren gurasoak hil egin ziren, baina hil baino lehenago Patxi bere gurasoekin bizi zen etxe horretan. Patxiren gurasoak kotxe istripu batean hil ziren Patxik 6 urte zituenean. Istripua gertatu eta urte batzuk geroago Patxik Max topatu zuen eta bere etxera eraman zuen. Patxi Maxekin bizi zen bere gurasoen etxean. Patxi eta Max pobreak ziren, inork ez zuelako lanik, baina Patxiren gurasoek zuten dirua ikastola ordaintzeko gordeta zegoen. Patxi Aranzadi ikastolara joaten zen. Maxek gizakien iskuntzak ulertzen zituen. Patxi argala zen, buru handia, ile luzea, ile lisoa, belarri handiak zituen eta ahula zen. Patxi premia gorrian bizi zen, pertsona ona zen eta ez zeukan lagunik.

Egun batean uda bukatu egin zen eta Patxik ikastolara joan beharra zuen. Patxi poz-pozik ikastolara zihoan, baina ikastolara heldu zenean Patxiri txantxak egiten hasi ziren.

“Dunbo, buru handi, premia gorrian bizi zara, makila bat ematen duzu, kar, kar, kar!!!”

Patxi negarrez sartu zen gelara. Eguerdian Patxi etxera joan zen eta arratsaldean ez zuen ikastolara joan nahi, gelakideak burla egiten ziotelako eta berriro burla egingo ziotela uste zuelako. Hala ere, Patxi ikastolara joan zen eta uste zuen moduan burla egin zioten. Patxik ez zuen ulertzen zergatik egiten zioten burla. Patxik irakasleari esan zion gertatutako guztia eta irakasleak esan zien burla egiten zutenei ez egiteko berriro burla. Burla egiten zutenek esan zuten ez ziotela berriro burlarik egingo eta Patxi poz-pozik joan zen etxera, pentsatuz ez ziotela berriro burlarik egingo.

Biharamunean Patxi ikastolara joan zen eta betiko moduan burla egin zioten. Burla bakarrik ez, oraingoan jo ere egin zuten irakasleari esateagatik. Patxi eguerdian etxera joan zen eta Maxi gertatutako guztia kontatu zion, eta Max asko haserretu zen. Arratsaldean Patxi ez zen bakarrik joan ikastolara, Maxekin joan zen. Patxiren gelakideak Patxiri burla egitera zihoazen, baina Max ikusi zutenean denak beldurtu egin ziren.

Hurrengo egunean Patxi berriro Maxekin joan zen, baina Max ezkutatuta zihoan Patxiren gelakideek ez jakiteko hor zegoela eta entzuteko Patxiri esaten zioten guztia. Maxek burlak entzuterakoan, Patxiri burla egiten ziotenei haginka egiten hasi zen, baina batzuk ihesi joan ziren eta beraiei zaunka egin zien. Hortik aurrera ez zioten burlarik egin Patxiri bere gelakideek, Maxi beldurra ziotelako. Patxi poz-pozik

joaten zen ikastolara, bai goizean bai eguerdian ere.

Bere gelakideak beste pertsona bati hasi ziren burla egiten eta Patxik bazekien zer ari zen pasatzen. Horregatik Patxi pertsona horri laguntzera joan zen, baina oraingoan Max gabe, eta bere gelakideek ez zioten kasurik egin. Patxik bere gelakideei esan zien:

“Laga bakean pertsona hori edo jo egingo zaituztet.”

“Ez zara ausartzen, bakarrik zure txakurrak babesten zaitu. Ez dakizu bakarrik zeure burua babesten.”

“Ez didazu sinesten? Jo egingo zaituztet!”

“Danba!!!”

“Aaaaaaaaaa!!! Zertan zabilta?”

“Zuei mendekoa ematen, niri eta pertsona honi egindako guztiagatik!”

Patxiren gelakideek ez zioten inori berriro burlarik egin hori gertatu ondoren. Aspertuta zeuden eta ez zekiten zer egin, eta azkenean beste pertsona laguntzen hasi ziren. Patxiren gelakideek Patxiri eskerrak eman zizkioten euren izateko modua aldatzen laguntzeagatik. Azkenean denak pozik zeuden eta inork ez zuen burlarik jasotzen.

Manolo